8 HOTS GOGAIKARRI ETA EZATSEGIN ORO, FREKUENTZIA GAMA OSOAREN BARRUAN EGONIK GIZAKIAREN BELARRIARI KALTE EGITEKO MODUKOA; NOLA DEITZEN ZAIO?

- 8a) Zarata.
- 8b) Atenuazio.
- 8c) Propagazio.
- 8d) Igorpen.

9 ETXEBIZITZA BATEN ELEKTRIFIKAZIO MAILA –ETXEBIZITZAREN EREMUAREN ARABERAKOA– IZAN DAITEKE OINARRIZKOA, BALDIN ETA:

- 9a) Gehienez hartzen duen eremua, metro koadrotan, 200 baino txikiagoa bada.
- 9b) Gehienez hartzen duen eremua, metro koadrotan, 160 edo txikiagoa bada.
- 9c) Gehienez hartzen duen eremua, metro koadrotan, 160 baino handiagoa bada.
- 9d) Elektrifikazio-maila ez bada etxebizitzaren eremuaren araberakoa.

10 MERKATARITZARAKO ERAIKUNTZA BATERAKO KARGAK, GUTXIENEO AURREIKUSPENA EGINEZ, HONAKO HAUEK IZANGO DIRA:

- 10a) Metro koadro eta solairu bakoitzeko 50 W; lokal bakoitzeko minimoa 3.450 W eta 230 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.
- 10b) Metro koadro eta solairu bakoitzeko 50 W; lokal bakoitzeko minimoa 3.450 W eta 380 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.
- 10c) Metro koadro eta solairu bakoitzeko 100 W; lokal bakoitzeko minimoa 3.450 W eta 230 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.
- 10d) Metro koadro eta solairu bakoitzeko 100 W; lokal bakoitzeko minimoa 3.450 W eta 380 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.

11 ELEKTRIFIKAZIO-MAILA HANDIKO ETXEBIZITZA BATEAN AURREIKUSI BEHARREKO GUTXIENEO POTENTZIA, ZEIN DA?

- 11a) 5.750 W.
- 11b) 7.360 W.
- 11c) 9.200 W.
- 11d) 11.500 W.

12 GARAJE BATERAKO KARGAK, GUTXIENEO AURREIKUSPENA EGINEZ, HONAKO HAUEK IZANGO DIRA:

- 12a) Aireztapen naturaleko garajeetan, metro koadro eta solairu bakoitzeko 10 W; minimoa 3.450 W eta 230 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.
- 12b) Aireztapen naturaleko garajeetan, metro koadro eta solairu bakoitzeko 20 W; minimoa 3.450 W eta 230 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.
- 12c) Aireztapen naturaleko garajeetan, metro koadro eta solairu bakoitzeko 50 W; minimoa 3.450 W eta 230 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.
- 12d) Aireztapen naturaleko garajeetan, metro koadro eta solairu bakoitzeko 100 W; lokal bakoitzeko minimoa 3.450 W eta 230 V artekoa izango da, eta aldiberekotasun-koefizientea 1.

- 13 BEROGAILURIK GABEKO 3 ETXEBIZITZAKO MULTZO BATEKO KARGA KALKULATZEKO, HONAKO ALDIBEREKOTASUN-KOEFIZIENTE HAU HARTUKO DA:**
- 13a) 0.
 - 13b) 1.
 - 13c) 3.
 - 13d) 10.
- 14 ESTALKI BAKARRAREN PEAN ISOLATUTAKO HAINBAT EROALEK ERATZEN DUTEN KABLEARI, NOLA DEITZEN ZAIO?**
- 14a) Kable polobakarra.
 - 14b) Sortan isolatutako kablea.
 - 14c) Kable malgua.
 - 14d) Kable multipolarra.
- 15 KABLEA KANPOKO AHALEGIN MEKANIKOETATIK BABESTEKO ZUMITZEZKO EDO ALANBREZKO ESTALDURARI, NOLA DEITZEN ZAIO?**
- 15a) Estalkia.
 - 15b) Blindajea.
 - 15c) Armadura.
 - 15d) Isolamendua.
- 16 XLPE SARE-POLIETILENOZ ISOLATUTAKO KABLEEK, ZER MOTAKO ISOLAMENDUA DUTE?**
- 16a) Lehorra.
 - 16b) Elastomeroa.
 - 16c) Termoplastikoa.
 - 16d) Minerala.
- 17 TENTSIO NOMINALA 1.000 V-KOA DUTEN KABLEAK, NON EZAR DAITEZKE?**
- 17a) Leku lehorretan bakarrik.
 - 17b) Leku hezeetan bakarrik.
 - 17c) Leku guztietan.
 - 17d) Ezin dira ezarri.
- 18 KABLE POLOBAKARRETARAKO KOLORE-KODEAREN ARABERA, ZERTARAKO ERABILTZEN DA KOLORE URDIN ARGIKO EROALEA?**
- 18a) Faseetarako.
 - 18b) Lurrerako.
 - 18c) Babeserako.
 - 18d) Neutrorako.

19 KABLE MULTIPOLARRETARAKO KOLORE-KODEAREN ARABERA, HONAKO HAUEK DIRA BABESDUN EROALEAK DITUZTEN 3 EROALEEN KOLOREAK:

- 19a) Hori-berdea, urdin argia eta beltza.
- 19b) Urdin argia, beltza eta grisa.
- 19c) Beltza, grisa eta marroia.
- 19d) Urdin argia, grisa eta gorria.

20 HARILEZ INDUZITUTAKO BI EREMU ELEKTROMAGNETIKOK ERAGITEN DUTEN EKINTZAN OINARRITUTAKO ERRELEAK, NOLA DEITZEN DIRA?

- 20a) Errele termikoak.
- 20b) Errele elektrodinamikoak.
- 20c) Errele elektronikoak.
- 20d) Indukziozko erreleak

21 LINEAK ETA SAREAK BABESTEKO ERABILTZEN DIREN ERRELEEN MOTAK DIRA:

- 21a) Gainintensitatezko erreleak.
- 21b) Gehienezko eta gutxienezko tentsioko erreleak.
- 21c) Diferentzialak.
- 21d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

22 ERRELE MOTA BATZUETAN, LANEAN EMATEN DUTEN DENBORA BATEZ BESTEKO INTENSITATEAREN FUNTZIOA IZATEN DA; ZEIN ERRELE MOTATAN?

- 22a) Berehalako erreleetan.
- 22b) Denbora finkoko erreleetan.
- 22c) Alderantzizko denborako erreleetan.
- 22d) Ez dago horrelako errelerik.

23 HAUTAKORTASUN ETA ARINTASUN HANDIA BEHAR DIREN SISTEMETAN, ZER ERRELE MOTA ERABILTZEN DA?

- 23a) Errele termikoak.
- 23b) Edozein errele mota.
- 23c) Intentsitatezko errele diferentzialak.
- 23d) Indukziozko erreleak.

24 PERTSONEN SEGURTASUNERAKO EREMUAN, ZER DA NBE BAT?

- 24a) Lehen interbentzioko ekipamendu bat.
- 24b) Norbera babesteko ekipamendu bat.
- 24c) Intentsitatezko lehen mailako elementu bat.
- 24d) Intentsitatezko babes elementu bat.

25 ZER SEGURTASUN ELEMENTU ERABILI BEHAR DA TENTSIO ERTAINEKO INSTALAZIOETAN TENTSIO-RIK EZ DAGOELA EGIAZTATZEKO?

- 25a) Voltmetroa.
- 25b) Pertika detektagarri bat.
- 25c) Amperometroa.
- 25d) Jarioak hautemateko detektagailua.

26 INSTALAZIO ELEKTRIKOETAN LANAK EGITEKO, LEHENBIZIKO URREZKO SEGURTASUN-ARAU DA:

- 26a) Ebakitzeko eta seinaleztapenak egiteko gailuen aginteetan katigatzeak edo blokeoak ezartzea, ahal bada.
- 26b) Tentsio-iturri guztiak eten garbiarekin irekitzea, etengailuekin edo bat-batean ixtea eragotziko duten sekzionadoreekin.
- 26c) Tentsio-rik ez dagoela ziurtatzea.
- 26d) Tentsio-iturri izan daitezkeen guztietan lur-konexioko kablea eta zirkuitulaburra ezartzea.

27 NOLA DEITZEN ZAIO BABES-KUTXA OROKORRA ELIKATZEN DUEN BANAKETA-SAREAREN ZATIARI?

- 27a) Elikatzeko linea orokorra.
- 27b) Kontagailuetako linea.
- 27c) Loturako instalazioa.
- 27d) Hargunea.

28 BABES KUTXA OROKORRA (BKO) HAUETAKO BATEN ZATI BAT DA:

- 28a) Loturako instalazioa.
- 28b) Aireko hargunea.
- 28c) Lurpeko hargunea.
- 28d) Banaketa-sarea.

29 ELIKADURA-LERRO OROKORREAN, TENTSIO JAITSIERA HAU ONARTZEN DA GEHIENEZ ERE:

- 29a) % 1, solairuka zentralizatutako kontagailuak dituzten etxebizitza-erakinetan.
- 29b) % 1, leku bakar batean kontzentratutako kontagailuak dituzten etxebizitza-erakinetan.
- 29c) % 5, leku bakar batean kontzentratutako kontagailuak dituzten etxebizitza-erakinetan.
- 29d) % 5, solairuka zentralizatutako kontagailuak dituzten etxebizitza-erakinetan.

30 ERAIKUNTZA BATEAN, BA AL DAGO HAINBAT KONTAGAILU-ARMAIRU EDO -GELA EZARTZEA BITARTEKO SOLAIRUETAN?

- 30a) Ez, inoiz ez.
- 30b) Bai, eraikuntzak 7 solairu baino gehiago izanez gero.
- 30c) Bai, eraikuntzak 12 solairu baino gehiago izanez gero.
- 30d) Bai, eraikuntzak solairuko 12 etxebizitza baino gehiago izanez gero.

- 31 ZENBAT KONTAGAILU ZENTRALIZATU AHAL DIRA GEHIENEZ ARMAIRU BATEAN?**
- 31a) 16 kontagailu baino gutxiago.
31b) Gehienez ere 16 kontagailu.
31c) 16 kontagailu baino gehiago.
31d) Kontagailuak ezin dira zentralizatu armairuetan.
- 32 KONTAGAILUEN ZENTRALIZAZIOA ETA AGINTE- ETA BABES-GAILU PRIBATUAK LOTZEN DITUZTEN LINEAK, NOLA DEITZEN DIRA?**
- 32a) Deribazio indibidualak.
32b) Hargunea.
32c) Loturako instalazioa.
32d) Elikatzeko linea orokorra.
- 33 HORNIDURA MONOFASIKOA ETA KONTRATATUTAKO POTENTZIA 3.450 W-KOA DITUEN ETXEBIZITZA BATEAN, ZER INTENSITATE IZAN BEHAR DU POTENTZIA KONTROLATZEKO ETENGAILUAK ?**
- 33a) 10 A.
33b) 15 A.
33c) 20 A.
33d) 25 A.
- 34 TENTSIO NOMINALA 66 KV EDO TXIKIAGOA ETA 30 KV EDO HANDIAGOA DUTEN TRANSFORMAZIO-ZENTROAK:**
- 34a) Lehen mailakoak dira.
34b) Bigarren mailakoak dira.
34c) Hirugarren mailakoak dira.
34d) Laugarren mailakoak dira.
- 35 TRANSFORMAZIO-ZENTROAN ABONATUARENA DEN ZATIA ZERBITZUZ KANPO JARTZEKO ARDURA DUEN GELAXKARI, NOLA DEITZEN ZAIO?**
- 35a) Linearen sarrerako gelaxka.
35b) Linearen irteerako gelaxka.
35c) Sekzionatze-gelaxka.
35d) Transformazio-gelaxka.
- 36 TRANSFORMAZIO-ZENTRO BATEAN, MANIOBREN SEGIDA UNEORO BEHAR BEZALAKOA IZATEA ERAGITEN DUEN ELEMENTU MEKANIKOARI, NOLA DEITZEN ZAIO?**
- 36a) Katigatze.
36b) Sekzionadore.
36c) Etengailu.
36d) Gelaxka.

37 KOEPPEN-EN SAILKAPENAREN ARABERA, KORRONTE BAT ARRISKUTSUA DA (BENTRIKULU-FIBRILAZIOAREN ARRISKUA) HONAKO INTENTSITATE HONETAKOA BADA:

- 37a) 25 mA-tik beherakoa.
- 37b) 25 mA-tik gorakoa eta 70 mA-tik beherakoa.
- 37c) 80 mA-tik gorakoa eta 4 A-tik beherakoa.
- 37d) 5 A-tik gorakoa.

38 PERTSONA BATEK TENTSIOPEKO EROALE BAT, INSTALAZIO BAT, ELEMENTU ELEKTRIKO BAT EDO MAKINA BAT UKITZEN DUENEAN, ZER MOTAKO UKIPENA GERTATZEN DA?

- 38a) Diferitua.
- 38b) Zuzenekoa.
- 38c) Zeharkakoa.
- 38d) Kapazitiboa.

39 ZER SENTIKORTASUN EDUKI BEHAR DU SENTIKORTASUN ERTAINEKO ETENGAILU DIFERENTZIAL BATEK?

- 39a) 30 mA.
- 39b) 300 mA.
- 39c) 500 mA.
- 39d) 1 A.

40 BAI EZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA GEZURREZKOA?

- 40a) Ur-hornidurako instalazioan erabiltzekoak diren materialak erabiltzen direnean, urak edatekoa izaten jarraitu behar du, eta ezin zaio aldaketarik eragin uraren usainari, koloreari eta zaporeari.
- 40b) Ur-horniduraren instalazioan erabiltzekoak diren materialek erresistenteak izan behar dute kanpoko korrosioaren kontra.
- 40c) Ur-hornidurako instalazioan erabiltzekoak diren materialek 40 ° C arteko tenperatura jasan behar dute, bai eta gertuko inguruan izaten diren kanpoko tenperaturak ere.
- 40d) Ur-horniduraren instalazioan erabiltzekoak diren materialek ezin dute bateraezintasun elektrokimikorik izan elkarren artean.

41 ITZULERA ERAGOZTEKO SISTEMAK EZARRIKO DIRA UR-HORNIDURAKO INSTALAZIOEN PUNTU HAUETAN:

- 41a) Kontagailuen aurretik eta goranzkoen oinarrian.
- 41b) Kontagailuen aurretik eta ura tratatzeko ekipoaren aurretik.
- 41c) Goranzkoen oinarrian eta ura tratatzeko ekipoaren ostean.
- 41d) Kontagailuen ostean eta goranzkoen oinarrian.

42 UREZ HORNITZEKO INSTALAZIOAK GUTXIENENKO ALDI BEREKO EMARI HAU EMAN BEHAR DU DUTXA BATERAKO:

- 42a) Ur hotzean, 0,10 dm³/s , eta 0,10 dm³/s etxeko ur beroan.
- 42b) Ur hotzean, 0,20 dm³/s , eta 0,10 dm³/s etxeko ur beroan.
- 42c) Ur hotzean, 0,10 dm³/s , eta 0,20 dm³/s etxeko ur beroan.
- 42d) Ur hotzean, 0,20 dm³/s , eta 0,20 dm³/s etxeko ur beroan.

43 KONTSUMOKO PUNTUETAN, GUTXIENeko PRESIOA HONAKO HAU IZANGO DA:

- 43a) 150 kPa xorrota erkideetan, eta 100 kP fluxometro eta berogailuetan.
- 43b) 100 kPa xorrota erkideetan, eta 150 kP fluxometro eta berogailuetan.
- 43c) 150 kPa xorrota erkideetan, fluxometroetan eta berogailuetan.
- 43d) Presioa, kontsumorako edozein puntutan, 500 kPa baino handiagoa izan behar da.

44 BAIETAPEN HAUETATIK, ZEIN DA GEZURREZKOA?

- 44a) Urez hornitzeko instalazioan, ur hotzaren harguneak hodi bat izan behar du, harguneko giltza eta hornidura eteteko giltza lotuko dituena.
- 44b) Ur hotzez hornitzeko instalazio orokorreko iragazkia Y motakoa izan beharko da, eta iragazteko atalasea 25 eta 50 µm artekoa izan beharko da.
- 44c) Etxeko ur beroaren produkzio zentralizatuko instalazioetan, banaketa-sareak beti izan behar du itzulerako sare bat.
- 44d) Itzulerako sareak eta etxeko ur beroa bulkatzeko sareak elkarren paralelo joango dira.

45 UREZ HORNITZEKO INSTALAZIOKO KONTSUMOKO PUNTU EDO APARATUAK KOBREZKO EDO PLASTIKOZKO HODIEKIN EGITEN DIRA. PUNTU EDO APARATU HORIEKIN LOTZEKO ADARRAK GUTXIENeko DIAMETRO NOMINAL BAT BEHAR DU:

- 45a) 12 mm konketarako, bideterako edo dutxarako.
- 45b) 12 mm konketarako eta 20 mm bideterako eta dutxarako.
- 45c) 12 mm konketarako eta bideterako eta 20 mm dutxarako.
- 45d) 20 mm konketarako, bideterako edo dutxarako.

46 URAK HUSTEKO SAREKO ITXIDURA HIDRAULIKOAK:

- 46a) Sifoi-potoak izan daitezke, aparatu bakoitzarenak.
- 46b) Parte mugikorak behar dituzte, hilerro-hilerro ikuskatzekoak.
- 46c) Seriean ezarri behar dira.
- 46d) Sifoi-hustulekuak izan daitezke.

47 URAK HUSTEKO SARE TXIKIETAN:

- 47a) Sifoi-potoaren eta zorrotaren arteko distantzia 2.00 m baino handiagoa izan behar da.
- 47b) Sifoi-pototik ateratzen diren adarrek 2,50 m luze edo laburragoak izan behar dute, eta malda % 6 edo % 8 artekoa izango dute.
- 47c) Konketetan, bidetetan eta arrasketan gainezkabidea jarri behar da.
- 47d) Elkarren aurreko hustubideak jarri behar dira, eta hodi erkide batean izango dute hargunea.

48 URAK HUSTEKO SAREKO KOLEKTORE LURPERATUAK:

- 48a) % 2 baino malda txikiagoa eduki behar du.
- 48b) Edateko uraren banaketa-sarearen gaineko erretenen bidez egon behar da antolatuta.
- 48c) Erregistroak instalatu behar dira, halako moldez non jarraituen arteko tarteez ez duten 10 m gaintuko.
- 48d) Erregistroak instalatu behar dira, halako moldez non jarraituen arteko tarteez ez duten 15 m gaintuko.

49 BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA ZUZENA?

- 49a) Huste-sistema batean, hau da lehen mailako aireztatzea: gehiegizko presioa eragoztearaz zorrotenaren oinarrian eta zorroteneko aire konprimitua ateratzen uztea.
- 49b) Huste-sistema batean, hau da bigarren mailako aireztatzea: zorrotena azken solairua baino harantzago luzatzea estalkira arte.
- 49c) 7 solairu baino gutxiagoko eraikinetan, nahikoa izango da lehen mailako aireztatzea eraikinaren aireztatze-sistema gisa.
- 49d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

50 SISTEMA MISTOETAN, ZER TARTE UTZI BEHAR DA EURI-UREN ZORROTEN BATEN ETA KOLEKTOREAREN ARTEKO LOTURAREN –ALDE BATETIK– ETA IBAIAN GORAKO HONDAKIN-UREN ZORROTEN GERTUENAREKIKO LOTURAREN –BESTETIK– ARTEAN?

- 50a) Ez dago zertan tarterik utzi.
- 50b) 1 metro
- 50c) 3 metro.
- 50d) 4,5 metro.

51 ZENBATEAN BEHIN GARBITU BEHAR DIRA LOKAL HEZEETAKO ETA GAINEAN IBILTZEKO AUKERA EMATEN DUTEN ESTALKIETAKO HUSTUBIDEAK ETA SIFOI-POTOAK?

- 51a) Hilean behin.
- 51b) Hiru hilean behin
- 51c) Sei hilean behin
- 51d) Urtean behin.

52 ZENBATEAN BEHIN GARBITU BEHARKO DA KOIPEAK ETA LOHIAK BEREIZTEKOA, HALAKORIK EGONEZ GERO?

- 52a) Hilean behin.
- 52b) Hiru hilean behin
- 52c) Sei hilean behin
- 52d) Urtean behin.

53 OSPITALE GISA ERABILTZEKO ERAIKIN BATEAN, HS OSASUNGARRITASUNA IZENENKO OINARRIZKO AGIRIKO HS3 SEKZIOA, BARRUKO AIREAREN KALITATEARI BURUZKOA, HONAKO HAUEI APLIKATZEN ZAIE:

- 53a) Hondakin-biltegi eta trastelekuei.
- 53b) Aparkaleku eta garajeei.
- 53c) Pazienteen gelei.
- 53d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

54 APARKALEKUAK ETA GARAJEAK:

- 54a) Aireztatze mekanikoko sistema bat izango dute, beti, ospitale gisa erabiltzeko eraikin batean badaude.
- 54b) Aireztatze natural edo mekanikoko sistema bat izango dute, edozein dela ere kokatuta dauden eraikin mota.
- 54c) Aireztatze naturaleko sistema bat izango dute, baina aireztatze-sistema aparkalekuarena ez besterena bada bakarrik.
- 54d) Aireztatze natural edo mekanikoko sistema bat izango dute, baina aireztatze-sistema aparkalekuarena ez besterena bada bakarrik.


55 AIRE BIDEZKO KONDENTSAZIORAKO UNITATE AUTONOMOAK EZARTZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA DA:

- 55a) Unitatetik lokalerako aire-irteera izatea, baina lokaletik unitaterako aire-itzulera ez izatea.
- 55b) Unitatetik lokalerako aire-irteera izatea, eta lokaletik unitaterako aire-itzulera izatea.
- 55c) Unitatetik lokalerako aire-irteera izatea, eta lokaletik unitaterako ur-itzulera izatea.
- 55d) Kondentsadoreerako ur sarrera izatea.

56 AIRE KONDENTSATUZKO SISTEMA ZATITU BATEAN, ZER ELEMENTU EZARRI OHI DIRA LOKALAREN KANPOALDEAN?

- 55a) Kontserbazio-unitatea eta lurrungailua.
- 55b) Konpresorea, lurrungailua eta aireztagailua.
- 55c) Konpresorea eta kondentsadorea.
- 55d) Kondentsadorea eta lurrungailua.

57 IRUDI HONETAN, KONTSOLA MOTAKO UR BIDEZKO KONDENTSAZIOZKO AIRE-KONDENTSAZIORE BAT AGERI DA. ADIERAZI ZEIN LETRAK SEINALATZEN DUEN LURRUNGAILUA.



- 57a) A letrak.
- 57b) B letrak.
- 57c) C letrak.
- 57d) D letrak.

58 FANCOIL DELAKOA AIRE-GIROGAILU BAT DA, FUNTSEAN HONAKO OSAGAI HAUEK DITUENA:

- 58a) Hegal-bateria, moto-haizagailua eta lurrungailua.
- 58b) Hegal-bateria, lurrungailua eta konpresorea.
- 58c) Hegal-bateria, moto-haizagailua eta iragazkiak.
- 58d) Moto-haizagailuak, konpresorea eta iragazkiak.

59 INDUKZIO BIDEZKO AIRE GIROTUKO INSTALAZIO BATEAN, ZER OSAGAI DITU INDUKTORE BATEK?

- 59a) Plenum-a, moto-haizagailuak eta haizabideak.
- 59b) Moto-haizagailuak, haizabideak eta iragazkiak.
- 59c) Plenum-a, haizabideak eta beroa trukatzeko bateriak.
- 59d) Haizabideak, beroa trukatzeko bateriak eta moto-haizagailuak.

60 URA HOZTEKO DORRE BAT:

- 60a) Bero-trukatzaile bat da, lurruna eragitekoa, kontaktu zuzenik gabekoa.
- 60b) Jariakin baten beroa (urarena) beste jariakin batera (airera) aldarazten du, jariakin biek kontaktu zuzena dutelarik beste ezein elementurik bitartean izan gabe.
- 60c) Jariakin baten beroa (airearena) beste jariakin batera (uretara) aldarazten du, jariakin biek kontaktu zuzena dutelarik beste ezein elementurik bitartean izan gabe.
- 60d) Jariakin baten beroa (urarena) beste jariakin batera (airera) aldarazten du, bi jariakinen arteko kontaktu zuzenekorik gabe.

61 HOZTEKO DORRE BAT OSATZEN DUTEN ELEMENTUAK DIRA:

- 61a) Betegarria, hodibihurra eta ura biltzeko erretilua.
- 61b) Hodibihurra, ura biltzeko erretilua eta tantak bereiztekoa.
- 61c) Betegarria, kondentsadorea eta airea punpatzeko ekipo mekanikoa.
- 61d) Betegarria, ura banatzeko sistema eta tantak bereiztekoa.

62 HOZTEKO DORRE BATEN BETEGARRIAREN FUNTZIOA DA:

- 62a) Bi jariakinen abiadura handitzea beroaren trukea hobetzeko.
- 62b) Uraren abiadura handitzea eta airearena murriztea, beroaren trukea hobetzeko.
- 62c) Denbora urritzea eta uraren eta airearen arteko kontaktu-eremua handitzea.
- 62d) Denbora gehitzea, bai eta uraren eta airearen arteko ukipen-eremua ere.

63 HOZTEKO DORREEN HAIZAGAILUAK, NON KOKATZEN DIRA?

- 63a) Dorrearen beheko aldean, airea xurgatzeko.
- 63b) Dorrearen beheko aldean, airea xurgatzeko, eta goiko aldean, haizea emateko.
- 63c) Dorrearen goiko aldean, haizea emateko
- 63d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

64 KONPRESOREAK, LABAINARAZTEKO OLIOAREN HONDAR-LURRUNIK EMATEN EZ DUTENAK:

- 64a) Pistoizko konpresoreak dira.
- 64b) Hortzarekiko konpresore birakariak dira.
- 64c) Torlojudun konpresoreak dira.
- 64d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

65 HONA HEMEN KONPRESOREEN EZAUGARRI NAGUSIAK:

- 65a) Emaria eta iragazketa-aldiak.
- 65b) Iragazketa-aldiak eta lan-presioa.
- 65c) Hornitutako emaria eta presioa.
- 65d) Lan-presio gutxienekoa eta gehienezkoa.

66 AIRE KONPRIMITUKO INSTALAZIOETAN, ESKUARKI, KONPRESOREEK GUTXIENEO PRESIO BAT BERMATU BEHAR DUTE:

- 66a) 2 bar.
- 66b) 6 bar.
- 66c) 15 bar.
- 66d) 20 bar.

67 AIRE KONPRIMITUZKO GENERADOREAK, JARIAKIN-EMARI HANDIAZ PRESIO APALEAN HORNITZEKO PRESTATURIK DAUDENEAN:

- 67a) Turbokonpresoreak dira.
- 67b) Pistoizko konpresoreak dira.
- 67c) Torlojudun konpresoreak dira.
- 67d) Paletadun konpresore birakariak dira.

68 AIRE KONPRIMITUZKO INSTALAZIO BATEKO TARTEKO METAGAILUAK, ZERTARAKO DIRA?

- 68a) Konpresoreetako aire konprimituaren kontsumoan izaten diren aldaketak xurgatzeko.
- 68b) Airearen tenperatura maila egokia iritsi arte handitzeko.
- 68c) Sare orokorreko presioa 10 bar iritsi arte handitzeko.
- 68d) Aire-erreserba jakin bat bermatzeko.

69 AIRE KONPRIMITUZKO SARE OSOAN KONTSUMOKO GAILUETARA ARTE GERTATZEN DIREN PRESIO JAISTEAK EZIN DIRA IZAN, PRAKTIKAN:

- 69a) Lan-presioaren % 1 baino handiagoak.
- 69b) Lan-presioaren % 2 baino handiagoak.
- 69c) Lan-presioaren % 4 baino handiagoak.
- 69d) Lan-presioaren % 5 baino handiagoak.

70 MAKINEK IZATEN DITUZTEN ARRISKU KIMIKOAK:

- 70a) Mekanika kontuek eragindakoak izaten dira.
- 70b) Elektromekanika kontuek eragindakoak izaten dira.
- 70c) Kontu termikoek eragindakoak izaten dira.
- 70d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

71 MEKANIKA KONTUEK ERAGINDA MAKINETAN MAIZEN IZATEN DIREN ARRISKUAK:

- 71a) Zapaltzea, ebakitzea eta alderdi beroekiko kontaktua dira.
- 71b) Ebakitzea, hautsa askatzea eta urradura izaten dira.
- 71c) Harrapaketa, inpaktua eta urradura izaten dira.
- 70d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

72 ZER DIRA BABES-ESTALKIAK?

- 72a) Langileak partikulen proiektiotik babesten dituzten elementuak.
- 72b) Langileak makinatan mugitzen ari diren organoetatik babesten dituzten elementuak.
- 72c) Langileak solidoen proiektiotik babesten dituzten elementuak.
- 72d) Langileak makinak erabiltzean eta mugitzean egiten diren maniobra arriskutsuetatik babesten dituzten elementuak.

73 SEGURTASUN-GAILU OZTOPAGARRI BAT DA:

- 73a) Langilea makinaren arrisku-eremuan sartzea eragozten duena.
- 73b) Langilearen mugimendua geldiarazten duena, arrisku-eremuan sartzea ezinezko eginez.
- 73c) Ez dago horrelako gailurik.
- 73d) Langilearen bi eskuak okupatzen dituena makinari eragiteko.

74 TORNUAN EZARTZEN DEN PLASTIKOZKO BURUA:

- 74a) Defentsa bat da.
- 74b) Babes-estalki bat da.
- 74c) Segurtasun-gailu mugagarri bat da.
- 74d) Segurtasun-gailu oztopagarri bat da.

75 MAKINA BATEN UHAL ERAGILEA ESTALTZEN DUEN METALEZKO KARKASA:

- 75a) Defentsa bat da.
- 75b) Babes-estalki bat da.
- 75c) Segurtasun-gailu mugagarri bat da.
- 75d) Segurtasun-gailu oztopagarri bat da.

76 NONIUS ZIRKULARRA:

- 76a) Zuzenean neurtzeko tresna bat da.
- 76b) Zeharka neurtzeko tresna bat da.
- 76d) Konparazio bidezko neurketa-tresna bat da.
- 76d) Egiaztapen bidezko neurketa-tresna bat da.

77 DENA DELAKO DIMENTSIOA EZARRITAKO MUGEN BARRUAN DAGOEN EDO EZ ADIERAZTEN DUTEN NEURKETA-TRESNAK:

- 77a) Konparaziozko tresnak dira.
- 77b) Egiaztatzeko tresnak dira.
- 77c) Zuzenean neurtzeko tresnak dira.
- 77d) Zeharka neurtzeko tresnak dira.

78 GALGA:

- 78a) Neurtzeko tresna bat da.
- 78b) Marrazteko tresna bat da.
- 78c) Hozkatzeko tresna bat da.
- 78d) Profilatzeko tresna bat da.

79 ZERRA-ORRIAREN HORTZEN ARTEKO TARTEARI, NOLA DEITZEN ZAIO?

- 79a) Jet cut.
- 79b) Trontzaketa.
- 79c) Oina.
- 79d) Urratsa.

80 ORRI ESTU BAT ETA EBAKITZEKO ALAKA SINPLEA DITUEN ZIZELARI, NOLA DEITZEN ZAIO?

- 80a) Arotz zizela.
- 80b) Barruko kanaldun zizela.
- 80c) Ebanista zizela.
- 80d) Gubia.

81 MOLDURA LAUAK ETA ERRETEKAK EGITEKO, ZER TRESNA ERABILTZEN DA?

- 81a) Amaiera emateko tresna.
- 81b) Zorrozteko tresna.
- 81c) Profilatzeko tresna.
- 81d) Marruskatzeko tresna.

82 JAPONIAR ZERRA BATEAN, ORTZAK ZEIN ALDETARA MAKURTUTA DOAZ?

- 82a) Ezkerrerantz makurtuta doaz.
- 82b) Eskuinerantz makurtuta doaz.
- 82c) Atzerantz makurtuta doaz.
- 82d) Aurrerantz makurtuta doaz.

83 PIEZA BAT ARIN ARBASTATZEKO ERABILTZEN DEN TRESNA:

- 83a) Gubia.
- 83b) Karrakagailua.
- 83c) Trintxa.
- 83d) Arraspa.

84 BEHAR BEZALA ILTZATZEKO, PUNTAREN ALTURA:

- 84a) Mihiztadurako piezarik meheenaren lodiera baino txikiagoa izan behar da.
- 84b) Mihiztadurako piezarik meheenaren lodiera 1,5 bider baino txikiagoa izan behar da.
- 84c) Mihiztadurako piezarik meheenaren lodiera 1,5 bider baino handiagoa izan behar da.
- 84d) Mihiztadurako piezarik meheenaren lodiera baino handiagoa izan behar da.

85 ATE BATEN ERTZEAN EGINDAKO KUTXA BATEAN AHOKATZEN DIREN SARRAILAK, ERTZ HORRETAN BAKARRIK IZATEN DIRENAK AGERIAN:

- 85a) Sarraila galkatuak izaten dira.
- 85b) Sarraila gainjarriak izaten dira.
- 85c) Sarraila zizelatuak izaten dira.
- 85d) Sarraila sinpleak izaten dira.

86 POMELA BATEAN, ZATI EMEA:

- 86a) Sarrailan finkatzen dena da.
- 86b) Heldulekuan finkatzen dena da.
- 86c) Atean finkatzen dena da.
- 86d) Bastidorean finkatzen dena da.

87 GAUZA KAMUTS (KOSKADUN) BATEK ERAGINDAKO ZAURIARI, NOLA DEITZEN ZAIO?

- 87a) Ziztadura zauria.
- 87b) Ebaki zauria.
- 87c) Makatu zauria.
- 87d) Zauri laburra.

88 ISTRIPUA IZAN DUEN BATEK KANPOKO ODOLJARIOA BADU ETA ODOL GORRIZKO ZURRUSTA ETENA ATERATZEN BAZAIO:

- 88a) Zauriak zain bati eragin dio. Ez dugu berehala geldiaraziko, minutu pare batean odola jariotzen utziko diogu, odolak berak garbi dezan zauria.
- 88b) Zauriak zain bati eragin dio. Berehala ekingo diogu, eskuarekin sakatuz eta torniketea eginez.
- 88c) Zauriak arteria bati eragin dio. Ez dugu berehala geldiaraziko, minutu pare batean odola jariotzen utziko diogu, odolak berak garbi dezan zauria.
- 88d) Zauriak arteria bati eragin dio. Berehala ekingo diogu, eskuarekin sakatuz eta torniketea eginez.

89 BEHE ALDEKO GORPUTZ-ADARRETAN, ZEIN LEKUTAN ESTUTU AHAL DA IZTER ARTERIA?

- 89a) Iztartean, sabelaren irteeran, pubiseko hezuraren kontra estutuz.
- 89b) Iztterraren erdiko herenean, kanpoaldetik.
- 89c) Belaunaren aurrealdeko aldean (zokogune popliteoa).
- 89d) Ez da arteria nagusirik estutu behar inoiz ere.

90 LEHEN SOROSPENETAN, BIZKORTZEKO TEKNIKA BAT DA "AHOZ AHOKO" ARNASKETA. ZENBATEAN BEHIN EMAN BEHAR DA AIREA?

- 90a) Segundoan behin.
- 90b) 5 segundorik behin.
- 90c) 25 aldiz minutuko.
- 90d) 30 aldiz minutuko.

91 LABAINKORTASUNAREN ARABERA 2. KLASEKOTZAT SAILKATZEN DEN LURZORUAK IRRISTATZEAREN KONTRAKO ERRESISTENTZIA R BALIO BAT IZAN BEHAR DU:

- 91a) 15 edo txikiagoa.
- 91b) 15 baino handiagoa, eta 35 baino txikiagoa.
- 91c) 35 edo handiagoa, eta 45 baino txikiagoa.
- 91d) 35 baino handiagoa, eta 45 edo txikiagoa.

92 LABAINKORTASUNA DELA ETA, BARNEKO ALDERDI LEHORRETAN DAUDEN LURZORUEI ESKATU AHAL ZAIEN KLASEA DA:

- 92a) Gutxienez 1. klasea.
- 92b) 3. klasea, % 6 baino malda handiagoa duten eremuetarako.
- 92c) 2. klasea, % 6 baino malda txikiagoa duten eremuetarako.
- 92d) 1. klasea, % 6 edo malda txikiagoa duten eremuetarako.

93 ERABILERA OROKORREKO ESKAILERETAN:

- 93a) Mailagaina 220 mm-koa izango da gutxienez.
- 93b) Mailagaina, tarte artzetan, 220 mm-koa izango da gutxienez.
- 93c) Mailagaina 280 mm-koa izango da gutxienez.
- 93d) H mailagainak eta C kontramailak ondorengo erlazioa izango dute eskailera berean zehar: $50 \leq 2C + H \leq 740$ mm.

94 ARGIZTAPENAREN GUTXIENENKO MAILA HONAKO HAU IZANGO DA:

- 94a) 10 lux, pertsonentzako bakarrik diren eskaileren kanpoaldean.
- 94b) 10 lumen, pertsonentzako bakarrik diren eskaileren kanpoaldean.
- 94c) 50 lux, pertsonentzako bakarrik diren eskaileren barnealdean.
- 94d) 50 lumen, pertsonentzako bakarrik diren eskaileren barnealdean.

95 LARRIALDIETAKO ARGIZTATZEA IZANGO DA HONAKO GUNE ETA ELEMENTU HAUETAN:

- 95a) 150 pertsona baino gehiagoko okupazioa daukan barruti orotan.
- 95b) Eremu eraikia 150m^2 baino handiagoa duten aparkalekuetan.
- 95c) Erabilera publikoko eraikinetako solairuko komun orokorretan.
- 95d) Instalazioetako ekipo orokorrak dituzten lokaletan.

96 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA

- 96a) Zerbitzu sanitarioetara heltzea, zerbitzuon administrazioa eta prestazio-araubidea araudi bidez arautuko da
- 96b) Zerbitzu sanitarioetara heltzea, zerbitzuon administrazioa eta prestazio-araubidea nazioarteko itun bidez arautuko da
- 96c) Zerbitzu sanitarioetara heltzea, zerbitzuon administrazioa eta prestazio-araubidea Ospitale bakoitzak arautuko du
- 96d) Zerbitzu sanitarioetara heltzea, zerbitzuon administrazioa eta prestazio-araubidea Konstituzioak berak arautzen du

97 ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA

- 97a) OSAKIDETZA eta Euskal Osasun Zerbitzua ez dira gauza bera
- 97b) OSAKIDETZA administrazio publiko bat da, Udalak diren bezala
- 97c) OSAKIDETZA Ente publiko bat da
- 97d) OSAKIDETZA Zuzenbide publikoko Ente pribatu bat da

98 OSAKIDETZAKO PAZIENTE ETA ERABILTZAILA DEN ALDETIK EMAKUMEAREN ESKUBIDE ESPEZIFIKOEN BAITAN HAUXE DAUKAGU

- 98a) Ospitalean dagoen bitartean bere izaera femeninoaren inguruko liburuak edukitzeko eskubidea
- 98b) Bere adin bereko emakumeekin batera ospitaleratua izateko eskubidea
- 98c) Antisorgailu-metodo bat aukeratzeari buruzko informazioa eta aholkuak jasotzeko eskubidea
- 98d) Ikus-entzunezko baliabideak izateko eskubidea itzarongelan edo erditzeko gelan dagoenean

99 OKERRA DA

- 99a) Gaixotasun kronikoak patroï epidemiologiko nagusiak direla pentsatzea
- 99b) Egungo sistema interakzio akutuetan zentratutako patroï epidemiologiko baten arabera egituratuta dagoela ulertzea
- 99c) Gaixotasun kronikoak euskal osasun-sistemarekiko erlazioen %50 direla pentsatzea
- 99d) Sistema sanitarioa baliabide sozialekin integratu gabe dagoela pentsatzea

100 EUSKADIKO OSASUN SISTEMAN PAZIENTEEN BETEBEHARREN ARTEAN HAUXE DAUKAGU

- 100a) Medikuek begirunez tratatzea
- 100b) Beste gaixo batzuk begirunez tratatzea
- 100c) Tratamenduekin arduratsu izatea
- 100d) Pazienteen laguntzaileak begirunez tratatzea

ORDEZKO GALDERAK

101 ETETE OMNIPOLARREKO ETENGAILU OROKOR AUTOMATIKOAK HONAKO ZIRKUITULABUR-INTENTSITATERAKO ADINAKO ETETE AHALMENA IZANGO DU GUTXIENEZ:

- 101a) 30 A.
- 101b) 1.200 A.
- 101c) 4.500 A.
- 101d) 8.000 A.

102 TENSIO BAXUKO INSTALAZIOETAN ERABILTZEN DEN IRUDIAREN SINBOLOA:



- 102a) Alderantztailearena edo kizkurtzailearena da.
- 102b) Bateriarena da.
- 102c) Transformadorearena da.
- 102d) Zelula fotovoltaikoarena da.

103 TENTSIO BAXUKO INSTALAZIOETAN ERABILTZEN DEN IRUDIAREN SINBOLOA:



- 103a) Detektagailu termikoarena da.
- 103b) Karbono monoxidoaren detektagailuarena da.
- 103c) Detektagailu fotoelektrikoarena da.
- 103d) Detektagailu ionikoarena da.

104 NOLA DEITZEN ZAIO TRANSFORMAZIO-ZENTRO BATEKO POTENTZIA-TRANSFORMADOREAN EZARTZEN DEN GELAXKARI?

- 104a) Makinak babesteko gelaxka.
- 104b) Transformazio-gelaxka.
- 104c) Sekzionatze-gelaxka.
- 104d) Neurketa-gelaxka.

105 ERAGIN BEHAR AL ZAIO KARGA-SEKZIONATZAILE BATI?

- 105a) Ez, inoiz ez.
- 105b) Bai.
- 105c) Batzuetan
- 105d) Gelaxka ireki baino lehen.

106 RV-0,6/1 KV – 5G10 KABLEA HONELA DAGO OSATUTA:

- 106a) 3 eroalez (3 fase)
- 106b) 4 eroalez (3 fase + neutroa).
- 106c) 5 eroalez (3 fase + neutroa + babesia).
- 106d) 4 eroalez (3 fase + babesia).

107 NOLA NEURTZEN DA SOINUA?

- 107a) Pascal-etan.
- 107b) Watt-etan.
- 107c) Ohm-etan.
- 107d) Hertz-etan.

108 SOINUAREN ABIADURA, GUTXI GORABEHERA:

- 108a) 140 m/s da.
- 108b) 340 m/s da.
- 108c) 540 m/s da.
- 108d) 940 m/s da.

109 ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK, BAT GEZURREZKOA DA; ZEIN?

- 109a) Ebakuazio-bideen larrialdietako argiztapenak gutxienez eskatutako argiztapen-mailaren % 50era iritsi behar du, 5 segundoko tartean, eta % 100era, 60 segundoko tartean.
- 109b) Elikadura-tentsioa bere balio nominalaren % 60etik behera jaitea elikadura-akatsa dela jotzen da.
- 109c) Larrialdiko argiztapenaren instalazioa finkoa izango da.
- 109d) Ebakuazio-bide bateko erdiko lerroan, iluminantzia maximoaren eta minimoaren arteko aldeak ez du 40:1 baino handiagoa izan behar.


110 ERABILERA OROKORREKO ESKAILERA BATEAN, ESKAILERA TARTEAREN ZABALERA ERABILGARRIA, ERAIKINAREN ERABILERAREN ARABERA.

- 110a) 1,20 m izango da 90 °-ko birak egitera behartzen duten ibilbideak dituzten pazienteentzako guneeetan, edo handiagoa osasun-erabilerako eraikinetan.
- 110b) 1,40 m izango da ospitaleratzeko eta tratamendu intentsiboko guneeetako tarte bihurtetan.
- 110c) 1,20 m izango da jendearentzako irekitako eraikinetan.
- 110d) 1,20m izango da osasun-erabilerako eraikinetan pazienteentzako ez diren guneeetan.

111 LANEAN DABILEN HOZTEKO DORRE BATEKO IRAGAZKIA ETA ERRETILUA DRAINATU ETA GARBITZEA; ZENBATEAN BEHIN EGIN BEHAR DA?


- 111a) Astean behin
- 111b) Hilean behin.
- 111c) Hiru hilean behin
- 111d) Urtean behin.

112 IRUDIAN, LEIHO BIDEZ AIREA GIROTZEKO SISTEMA BATEN ESKEMA AGERI DA. ESAN EZAZU ZEIN ZENBAKIK SEINALATZEN DUEN KONDENTSADOREA:



- 112a) 1 zenbakiak.
- 112b) 2 zenbakiak.
- 112c) 3 zenbakiak.
- 112d) 6 zenbakiak.

- 113 **IRUDIAN, AIRE BIDEZKO KONDENTSAZIOKO UNITATE TRINKO BERTIKAL BAT AGERI DA: ADIERAZI ZER ZENBAKIK SEINALATZEN DUEN KONPRESOREA.**



- 113a) 1 zenbakiak.
 113b) 2 zenbakiak.
 113c) 3 zenbakiak.
 113d) 5 zenbakiak.

- 114 **LANEAN DABILEN HOZTEKO DORRE BATEAN TANTAK BEREIZTEKOA BERRIKUSI ETA EGIAZTATZEA; ZENBATEAN BEHIN EGIN BEHAR DA?**

- 114a) Hilean behin.
 114b) Hiru hilean behin.
 114c) Sei hilean behin.
 114d) Urtean behin.

- 115 **URAK HUSTEKO SAREKO PUNPATZE- ETA JASOTZE-SISTEMAK, NOIZ EZARRIKO DIRA? ETA NONGO URAK ISURI BEHAR DIRA SISTEMA HORRETARA?**

- 115a) Barneko sarea edo haren zati bat hargunearen kotaren gainetik ezarri behar denean; hargunearen gainetik dauden eraikinaren aldeetako hondakin-urak isuri behar dira sistema horretara.
 115b) Barneko sarea edo haren zati bat hargunearen kotaren gainetik ezarri behar denean; hargunearen gainetik dauden eraikinaren aldeetako hondakin-urak ez dira isuri behar sistema horretara.
 115c) Barnek sarea edo haren zati bat hargunearen kotaren petik ezarri behar denean; hargunearen gainetik dauden eraikinaren aldeetako hondakin-urak ez dira isuri behar sistema horretara.
 115d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

- 116 **BI EDO LAU HODIKO UR-INSTALAZIO ZENTRALIZATU BATEAN UNITATE TERMINAL GISA ERABIL DAITEZKE:**

- 116a) Aire-giroztaileak.
 116b) Fancoilak
 116c) Induktoreak.
 116d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

117 KALIBREA NEURTZEKO TRESNA BAT DA:

- 117a) Zuzenean neurtzeko.
- 117b) Zeharka neurtzeko.
- 117c) Egiaztapen bidez neurtzeko.
- 117d) Konparazioz neurtzeko.

118 BABESTU BEHARREKO TRANSFORMADOREA EDO HARTZAILEA ELIKATZEN DUEN FASE BAKOITZETIK IGAROTZEN DEN INTENTSITATEAREN BIDEZ ERAGITEN DIREN ERRELEAK, NOLA DEITZEN DIRA?

- 118a) Gutxieneko errelea.
- 118b) Gehienezko errelea.
- 118c) Zuzeneko errelea.
- 118d) Zeharkako errelea.

119 BI TRANSFORMADOREK PARALELOAN LAN EGIN AHAL IZATEKO BALDINTZETAKO BAT DA:

- 119a) Transformadore baten eta bestearen lehen mailako tentsioek ezberdinak izan behar dute.
- 119b) Transformadore baten eta bestearen bigarren mailako tentsioek ezberdinak izan behar dute.
- 119c) Bi transformadoreen zirkuitulabur-tentsioak berdina izan behar du.
- 119d) Bi transformadorek ezin dute inoiz paraleloan lan egin.

120 EUSKADIKO LURRALDEAN

- 120a) Indarrean dagoen araudiaren arabera, osasun-ministroak hedatu dezake prestazio sanitario indibidualen katalogoa
- 120b) Indarrean dagoen araudiaren arabera, Diputazioak hedatu dezake prestazio sanitario indibidualen katalogoa
- 120c) Indarrean dagoen araudiaren arabera, Ospitale bakoitzak hedatu dezake prestazio sanitario indibidualen katalogoa
- 120d) Indarrean dagoen araudiaren arabera, Eusko Jaurlaritzak hedatu dezake prestazio sanitario indibidualen katalogoa

OSAKIDETZA

2012ko urtarilaren 9koa 18/2012
Erabakiaren bidez egindako
Oposaketa-Lehiaketarako deia (EHAA
18 Zkia. 2012ko urtarilaren 26koa)

Concurso-Oposición convocado
por Resolución nº 18/2012 de 9 de
enero de 2012 (BOPV Nº 18 de 26 de
enero 2012)

KATEGORIA: *MANTENIMENDU OFIZIALA*

CATEGORÍA: OFICIAL MANTENIMIENTO

Proba eguna / Fecha prueba:

2012ko uztailaren 14a / 14 de julio de 2012

B Eredua / Modelo B

1 ¿DÓNDE SE PUEDEN INSTALAR LOS CABLES DE TENSION NOMINAL 1.000V?

- 1a) Sólo en lugares secos.
- 1b) Solo en lugares húmedos.
- 1c) En todos los lugares.
- 1d) No se pueden instalar.

2 SEGÚN EL CODIGO DE COLORES PARA CABLES UNIPOLARES, UN CONDUCTOR DE COLOR AZULCLARO SE EMPLEA PARA:

- 2a) Fases.
- 2b) Tierra.
- 2c) Protección.
- 2d) Neutro.

3 SEGÚN EL CODIGO DE COLORES PARA CABLES MULTIPOLARES, LOS COLORES DE 3 CONDUCTORES CON CONDUCTOR DE PROTECCIÓN SON:

- 3a) Amarillo-verde, azul claro y negro.
- 3b) Azul claro, negro y gris.
- 3c) Negro, gris y marrón.
- 3d) Azul claro, gris y rojo.

4 LOS RELÉS BASADOS EN LA ACCION QUE EJERCEN DOS CAMPOS ELECTROMAGNÉTICOS INDUCIDOS POR DOS BOBINAS SE LLAMAN:

- 4a) Relés térmicos.
- 4b) Relés electrodinámicos.
- 4c) Relés electrónicos.
- 4d) Relés de inducción.

5 LOS TIPOS DE RELES UTILIZADOS PARA LA PROTECCIÓN DE LINEAS Y REDES SON:

- 5a) Relés de sobreintensidad.
- 5b) Relés de máxima y mínima tensión.
- 5c) Diferenciales.
- 5d) Todas las respuestas son correctas.

6 ¿EN QUE TIPO DE RELES EL TIEMPO DE OPERACIÓN ES FUNCIÓN DE LA MAGNITUD DE LA INTENSIDAD MEDIDA?

- 6a) Relés instantáneos.
- 6b) Relés de tiempo fijo.
- 6c) Relés de tiempo inverso.
- 6d) No existe ese tipo de relés.

7 ¿QUÉ TIPO DE RELÉS SE UTILIZAN EN SISTEMAS DONDE SON NECESARIAS ALTA SELECTIVIDAD Y RAPIDEZ?

- 7a) Relés térmicos.
- 7b) Cualquier tipo de relés.
- 7c) Relés diferenciales de intensidad.
- 7d) Relés de inducción.

8 EN EL AMBITO DE SEGURIDAD PARA LAS PERSONAS, ¿QUÉ ES UN EPI?

- 8a) Un equipo de primera intervención.
- 8b) Un equipo de protección individual.
- 8c) Un elemento primario de intensidad.
- 8d) Un elemento de protección intensiva.

9 ¿QUE ELEMENTO DE SEGURIDAD SE DEBERÁ UTILIZAR PARA LA COMPROBACIÓN DE AUSENCIA DE TENSION EN INSTALACIONES DE MEDIA TENSIÓN?

- 9a) Voltímetro.
- 9b) Pértiga detectora.
- 9c) Amperímetro.
- 9d) Detector de fugas.

10 LA 1ª REGLA DE ORO DE SEGURIDAD, PARA TRABAJOS EN INSTALACIONES ELECTRICAS DICE:

- 10a) Enclavamiento o bloqueo, si es posible, de los aparatos de corte y señalización en el mando de éstos.
- 10b) Abrir con corte visible todas las fuentes de tensión mediante interruptores, seccionadores que aseguren la imposibilidad de su cierre intempestivo.
- 10c) Reconocimiento de la ausencia de tensión.
- 10d) Puesta a tierra y cortocircuito de todas las posibles fuentes de tensión.

11 ¿CÓMO SE DENOMINA LA PARTE DE LA RED DE DISTRIBUCIÓN QUE ALIMENTA A LA CAJA GENERAL DE PROTECCIÓN?

